

BERDINTASUN ESKUBIDEAK ERDIGUNEAN

Planek feminismo sindikala zabaltzen jarrai dezaten lanean

Martxoaren 8aren egunaren jatorria, eskubiderik gabeko genero-patuarekin konformatu ez ziren emakume guztien borrokan dago, zeintzuek esplotazioa, prekaritatea eta eskubide politikorik ezaren aurrean erresistentzia agertu zuten. 1907an Stuttgarten egindako Emakume Sozialisten I. Nazioarteko Konferentzian, Clara Zetkinnek alderdi sozialistei emakumeen botoaren aldeko kanpaina egiteko eskatu zien ondoren 1910 urtean Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzea proposatzeko. Emakume langileen lan baldintza miserableak izan ziren sistema heteropatriarkalean egunero egiten dugun baina egun jakin batean kondentsatua ospatu behar den borroka feministaren eragile.

Emakumeen egunaren lehen ospakizuna 1911ko martxoaren 19an egin zen, eta milaka emakume bildu zituen Alemania, Austria, Danimarka eta Suitzan, ondoren, beste herrialde askotara zabalduz. Are gehiago, 1977an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak urtean behin Emakumeen Eskubideen eta Nazioarteko Bakearen aldeko Nazioarteko Eguna izendatzeko gonbita egin zien estatuei. Harrezkero, data sinboliko bat finkatu da erakusteko: batetik, emakumeok gizonezkoen menderatze-sistema batean jasaten ditugun diskriminazio anitzen iraunkortasuna, eta, bestetik, emakumeok errealitate historiko, unibertsal eta bidegabea eraldatzeko elkartzeko dugun gaitasuna.

Ez gintuzten otzandu, ez genuen etsi, eta ez gara geldituko eskubide berdintasuna lortu arte.

Emakume antolatuen indarrak gizonezkoen menderatze-sistema honen alderdi kaltegarrienak aldatzea lortu du, eta ideia feministek gizarte osoarengan izan dute eragina, baina hori lortzeko, martxoaren 8a eguneratu behar dugu etengabe espazio guztietan, "*feminismoa banaka bizitzeko eta kolektiboki borrokatzeko modu bat baita*".

Aurtengo martxoaren 8an feminismo sindikala aldarrikatzen dugu

CCOOn helburu nagusietako bat emakumeen bizi-baldintzak hobetzea izan da lan baldintzetan diskriminazioaren aurka borrokatuz eta bere esparruan egin du lan hori: lantokietan. Horrela, gainerako feminismoak laguntzen ditu eta, bere feminismo sindikalarekin, feminismoa espazio guztietara zabaltzea lortzen du.

Simone de Beauvoir-ek zioenez, *"lanaren bidez, gainditu du emakumeak gizonarengandik bereizten duen distantzia. Lana da askatasun osoa berma diezaiokeen gauza bakarra"* eta askatasun hori lortzea zaila da autonomia ekonomikorik gabe. Ez dago ezer gogorragorik tratatu txarrak jasaten eta bere mendekotasun ekonomikoagatik indarkeriatik atera ezin den emakume bat baino.

Horregatik ezinbestekoa da laneko diskriminazioarekin eta arrakala guztiekin bukatzea, lantokiak pertsona guztientzako, bereziki emakumeentzat, bermedun espazio ziur bihurtuta.

Egun bat ospatzen dugun arren borroka hau urteko egun bakoitzean gaurkotzen dugu, diskriminazioa salatuz, laneko arau orokorrak hobetzeko proposamenak eginez – lan erreformaren negoziazioa edo lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera, emakumeei eragiten diena gehien bat geu garelako lan eta soldata baldintza okerragoak ditugunak- bizi eta lan baldintza hobeak negoziatuz gizarte elkarrizketa, hitzarmen kolektiboen eta berdintasun planen bitartez.

Berdintasuna neurri zehatzekin lortzen da eta horretarako berdintasun planen negoziazioa tresna ona da.

Lan hau aurrera ateratzea ezinbestekoa da eta hitzarmen kolektiboen bitartez erantzukidetasuna indartzea eta soldata arrakala murriztea lortu da, berdintasun planak Europa osoan dauden tresna feministarik onena dira lantokietan lan berdintasuna lortzeko.

Aktibo sindikalaren inplikazioak eta berdintasunaren aldeko apustu sindikalak aurrerapen kuantitatiboa ekarri dute. 2021eko azaroan, 50 langile baino gehiagoko 6.026 enpresa ziren berdintasun plana zutenak, eta une honetan 7889 plan aktibo daude REGCONen. Aurrerapen

kuantitatiboa geldiezina da. 2023ko urtarrilean bakarrik 577 berdintasun plan erregistratu dira. Plan horiek enpresa horietan lan egiten duten pertsonen bizitza hobetu dute kualitatiboki, eta, besteak beste, honako hauek adostu dituzte: emakumeak maskulinizatutako lanpostuen ehuneko jakin batean sartzea, behin-behinekotasuna eta partzialtasuna murriztuz, lanaldia malguagoa izatea, kontziliatzeko lanaldi murrizketak izan dituzten pertsonak maila-igoeran kaltetuak ez izatea, lanpostuak baloratu ondoren dagokion kategoria hitzarmen kolektiboko lanbide-sailkapenean behar bezala birkokatzea, emakumeek historikoki egindako eta orain arte ordaindu ez diren trebetasunak baloratuko dituzten osagarri berriak sartzea, langile guztientzako lanorduetan berdintasunari buruzko prestakuntza, genero indarkeriaren biktimentzako laguntza psikologikoa eta/edo finantzarioa, hala behar izanez gero, genero ikuspegia duten NBEak aplikatzea, deskonexio digitalerako eskubidea, prebentzioaren aurkako protokoloak izatea.

Eta sexu jazarpenaren eta sexu arrazoiengatiko jazarpenaren trataera, soldata arrakalak murriztea eta ezartzen diren baina ordaintzen ez diren hainbat trebetasun aitortzea.

Feminismoa ez da lantokietako atean geratzen eta elkarrekin indartsuagoak garelako Langileen Legezko Ordezkaritzari proposatzen diogu ekintza feminista lantoki guztietan hedatzea, haiek egokien deritzoten formulen bitartez, martxoaren 8an, goizez, langile guztiek herri bakoitzean egiten diren manifestazio deialdietan parte-hartzeko.

Berdintasuna funtzionatzen duen plana da eta CCOOn badugu plana (berdintasunerako)

Emakumeak, Berdintasuna eta Lan Baldintzen Idazkaritza Konfederala

